

GOBIERNO DE NAVARRA

PRESIDENCIA JUSTICIA E INTERIOR

ECONOMIA Y HACIENDA

RELACIONES INSTITUCIONALES Y
PORTAVOZ DEL GOBIERNO

ADMINISTRACION LOCAL

EDUCACION

SALUD

DESARROLLO RURAL Y MEDIO
AMBIENTEASUNTOS SOCIALES FAMILIA
JUVENTUD Y DEPORTE

CULTURA Y TURISMO

OBRAS PUBLICAS TRANSPORTES Y
COMUNICACIONESVIVIENDA Y ORDENACION DEL
TERRITORIO

INNOVACION EMPRESA Y EMPLEO


SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Nafarroako bi irakaslek Hezkuntza Ministerioko Hezkuntza Teknologien Institutuaren saria jaso dute

José Javier Baile Burlatako Ibaialde BHIko irakasleak eta Juan Francisco Peñas Ablitasko San Babil ikastetxe publikoko irakasleak Europako ikastetxeekin batera egindako proiektuak aurkeztu zituzten

Jueves, 31 de marzo de 2011

Burlatako Ibaialde BHIko José Javier Baile eta Ablitasko San Babil HLHIPko irakasle nafarrek Hezkuntza Teknologien Institutuaren "eTwinning" programaren hamar sarieratik bana jaso zuten atzo. Hezkuntza Teknologien Institutua Hezkuntza Ministerioari atxikitako organismoa da. Ekitaldia Madrilen egin zen, HTIren egoitzan, eta haren buru izan ziren Rosa Peñalver Ministerioko Ebaluazio eta Lankidetzaren zuzendari nagusia, Antonio Pérez HTIren zuzendaria eta Carlos Medina Espainiako eTwinning Babeserako Zerbitzuaren zuzendaria.



José Javier Baile (1. ilaran, ezkerretik hasita lehenengoa) eta Juan Francisco Peñas (2. ilaran, eskuinetik hasita lehenengoa) Rosa Peñalver eta Antonio Pérezekin (erdian)

Guztira aurkeztu ziren 65 proiektuen artean aukeratu ziren [sarietuek](#) diploma eta opari bana jaso zuten. Horiez gain, sari nagusia ere jaso zuten, hau da, [urteroko eTwinning konferentziara](#) joateko aukera. Aurten Budapesten izango da martxoaren 31tik apirilaren 2ra eta, han, saritu diren irakasleek EBko beste herrialde batzuetako irakasleekin esperientziak trukatzeko aukera izango dute.

eTwinning ekintza 2005ean jarri zen abian eta Etengabeko Ikaskuntzako Europako Programaren parte da, Comenius azpiprogramak laguntzeko neurri gisa ezarri zuena. Ekintzak Europar Batasuneko hezkuntza zentroetako irakasleen eta ikasleen arteko lankidetzaren eta anaitze birtuala (online) sustatzen du.

Saritu diren proiektuak

- Burlatako Ibaialde BHIko José Javier Baile Torrea aukeratu zuten Publiczne Gimnazjum im. Orła Białego w Jabłonie (Polonia) ikastetxearekin egindako "So Far, So Near" proiektuagatik. Proiektu horretan bi ikastetxeetako ikasleek batera lan egiten dute dituzten jakintza orokorrak zabaltzeko eta atzerriko hizkuntzetan eta IKTetan dituzten

trebetasunak hobetzeko. Hurbilekoenari jartzen diote arreta (ikasgela, lagunak, familia, AE eta herrialdea, ohiturak eta kultura) baina urrunekoa ahaztu gabe (ikastetxe eta herrialde elkartuari loturiko guztia). Helburua zera da, ikasleak ohartaraztea distantzia ez dela batera lan egitea eragozteko arazoa.

- Juan Francisco Peñas Viso Abilitasko San Babil HLHIPko irakaslea saritu zuten Bradley C. E. Primary School (Erresuma Batua) eta Zespół Szkolno -- Przedszkolny Nr 6 w Zorach de Zory (Polonia) ikastetxeekin egindako "Comunication" proiektuagatik. Proiektu horretan ikastetxeetako partaideek haien bizitzetako alderdiak, zaletasunak, gogetak, iritziak eta gainerakoei erakustea interesgarria den guztia komunikatzen dute komikiak eginez.